



2009KO URTARRILAREN 15EKO
PRESAZKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko urtarrilaren hamabostean, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Inazio Estensoro Eskisabel, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Felix Urkola Iriarte eta Ángel Hernández Marzal zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, deialdiaren presazko izaerari buruz ebazten da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aspaldi honetan ikusten ari direla mozioak aurkezten direla azken unean eguneko gai zerrendetan barneratuak izateko osoko bilkura egin behar den egun berean eta ez dela jokabide egokia ez eztabaidaren funtzionamendurako eta ez da ere ekarpena egiteari dagokionean ere, eta hori horrela presazko ez-ohiko osoko bilkura hau egitearen aurka bozkatuko dutela.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak baimendu ondoren, Joseba Hernandezek esaten du beraien mozioa azkeneko unean aurkeztearena, osoko bilkura gaur zegoela gaur goizean jakin dutelako izan dela.

Osoko Bilkuraren batzarraldi honen presazko izaera bozketan jarri eta aldeko 8 boto (EAJ, EB) eta aurkako 3 botuz (PSE, PP) batzarraldia egitea onartu egiten da.

I.- ANITZ ESKISABELEN EPAIKETAREN AURREAN BI MOZIO.-

Lehenengo mozioak, Lazkaoko Ezker Abertzalearen izenean Igortz Badiolak izenpetutakoak, honela dio:

"Anitz Eskisabel Lazkaotarraren epaiketaren aurrean:

Aste honetan hasi berri den Anitz lazkaotarraren eta beste euskal herritarren aurkako epaiketaren karira lazkaoko ezker abertzaleak ondoko puntuak planteatzen ditu udal batzar honek onar ditzan:

- 1) Egindako akusazioetako argudio guztiak atxilotuei torturapean lortutakoak izanik, torturaren desagerpenean eta epiketa hau bertan behera geratzea exijitzen dugu.

...///...

- 2) Entzutegi Nazionala Euskal Herriaren aurka erabiltzeko diseinaturiko epaitegia izanik beraren desagertpena.
- 3) Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoak bermatuko dituen esparru berri baten irikiera galdatzen dugu.
- 4) Epaiketa honek gure herritarra den Anitz eta bere sendiari sortuko dizkion gastuak udalak bere gain hartzea.
- 5) Udal honek bere herritarrarekiko elkartasun adierazpen gisa salaketa publikoa egitea."

Bigarren mozioak, EAJk eta EB-Bk osatutako Lazkaoko Udalaren Udal Taldeak izenpetzen duten mozioak honela dio:

"Anitz Eskisabel lazkaotarraren epaiketaren harira EAJ-EB udal gobernu taldeak ondorengo mozioa aurkezten du.

1.- Udal gobernu taldeak berriro ere giza eskubide guztien aldeko aldarrikapena egiten du eta kasu guztietan errespetatuak izan daitezela exijitzen du. Zentzu horretan, giza eskubideen urraketa suposatzen duten jokabide guztien aurrean bere gaitzespena adierazten du. Ez dugu onartzen, bakoitzaren diskurtso politikoaren interesen arabera soilik komeni dezan salaketa egitea.

2.- Testuinguru honetatik abiatuta, errugabetasun presuntzioaren eskubidea defendatu eta aldarrikatu nahi dugu. Zentzu honetan neurri prebentiboak gehiegikeriaz erabiltzeak presuntzio hori deusez dezakela ikusten dugu eta horrek pertsonengan kalte larriak sortzen ditu.

3.- Zuzenbide Estatu Demokratiko batekin dira torturak bateraezinak. Tortura susmorik txikiena ere argitu behar dela uste dugu; argitu eta salatu, giza eskubideen zapalketa handi baitira.

4.- Azkenik, edozein gatazka konpontzeko bide elkarriketatuan sinesten dugula aldarrikatzen dugu, guztien errespetutik abiatuta eta bakoitzaren egitasmoak azaltzeko eta gauzatu ahal izateko bideak jorratuaz. Lan horretarako soberan daude jarrera baztertzailak (Alderdien legearen aplikazioa) eta indarkeriaren erabilera (ETAren jardura).

Horiek horrela, Udal honen plenorako hona gure ekarpenak, berauen eztabaida eta onarpenerako."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bi mozioen aurka bozkatu behar dutela. Gaineratzen du justiziak bere bidea egin behar duela ulertzen dutela eta ez direla tartean sartuko eta mozioen, naiz bata naiz bestearen, edukietan sartu gabe bietan aurka bozkatu dutela.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak eman ondoren, Joseba Hernandezek esaten du mozioa aurkezten dutenean hitzegiteko aurkezten dutela eta ez mozio baten aurrean kontramozioa aurkezteko eta dinamika hori ez dutela ondo ikusten eta hortik ondorioztatzen dutela udal honetan ez dagoela hitzegiteko borondate handirik.

...///...



...///...

Guzti honen ondoren bozketan jartzen dira bi mozioak.

Lehenengo mozioaren bozketan aldekorik ez dago, aurkakoak 9 (EAJ, PSE-EE, EB-B) eta abstentzioak 2 (Iñaki Saldaña eta Lourdes Garmendia), eta beraz mozioa ez da onartzen.

Bigarren mozioaren bozketan aldekoak 7 (EAJ, EB), aurkakoak 3 (PSE-EE, PP) eta abstentzioa 1 (Lourdes Garmendia) eta beraz mozioa onartu egiten da.

II.- PALESTINAREN EGOERAREN INGURUKO MOZIOA.-

EAJk eta EB-Bk osatzen duten Lazkaoko Udalaren udal taldeak aurkeztutako mozioak honela dio:

"PALESTINARREN AURKAKO ERASOAK ETA GAZAKO SARRASKIAK GAITZESTE-KO MOZIOA

Azken gertaerak direla-eta, Eaj eta EB gobernu taldeak Gazako egoerari buruzko mozio hau aurkezten du premia, osoko bilkuran eztabaidatzeko asmoz.

ZERGATIA

Nazioarteari aurka eginda, Israelgo gobernuak hamarnaka jomuga bonbardatu ditu Gaza-ko lurraldean. Horren ondorioz, 1000 hildako inguru eta 1.400 zauritu baino gehiago egon dira. Egunen joan-etorrian, kopuru hori handitu egin da. Sarraski hori ikusita, Lazkaoko Udalak zerbait esan behar du eta Gazako biztanleen aurkako erasoak salatu behar du. Era berean, nazioarteari eskatu behar dio presioa egiteko eta zigorrak ezartzeko. Horrela, ez da eraso gehiago egongo.

MOZIOA

Lazkaoko Udalak bete-betean gaitzesten ditu Israelgo estatuak Gazako biztanleen aurka garatutako azken ekintza terroristak, eta herri palestinarren aurkako erasoak berehala eteteko eskatzen du, hamarkadak eta hamarkadak daramatzatelako izu sionistaren eraginpean.

Lazkaoko Udalak AEBetako administrazioaren politika salatzen du, Israelgo estatu terroristak herri oso baten genozidioa antolatzen ari delako haren babespean. Palestinarrek behinola bota zituzten euren lurretatik, eta Gazako zein Zisjordaniako lurraldeak diren konzentrazio-eremuetan bizi dira gaur egun.

Lazkaoko Udalak nazioarteari eta, batez ere, Europar Batasunari eskatzen die eraso anker berria egitateen bidez gaitzesteko eta fondo ekonomikoak zein giza baliabideak eskaintzeko. Horrela, palestinarrei lagundu ahal izango diete euren eskubideak lortzen eta erasotzailea geldiarazten.

Lazkaoko Udalak Espainiako gobernuari eskatzen dio, Israeli armarik ez saltzeko egin beharrekoak egitea.

...///...

...///...

Lazkaoko Udalak Institutzio guztiei eskatzen die ahalik eta laguntza ekintza gehien abian jartzeko egoera larri horretatik irteten laguntzeko."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du testuarekin bat datozela eta israeldar estatuaren jokabidea gaitzesten dutela inolako zalantza izpirik gabe baina eskatuko luketela palestinoen aldetik egiten den kohete jaurtiketaren aipamena ere egitea, honek ere ez duelako laguntzen gunean pakea izateko.

Saldaña zinegotziak esaten du palestinar herria milaka urtetatik han dagoela eta israeldar herria aldiz 1949 urtetik aurrera han dagoen herri okupatzailea dela, eta beraz Palestinar Estatua Israeldar Estatuari oldartzeaz salatzea azken hau izan denean palestinarren etxera, lurrak kendu dizkietenean, ura, pareta jarri dietenean, eta abar eta palestinarrek egiten ari direna defendatzea denean eta gainera harri txikiekin defendatzen ari direnean tankeen aurka, guzti hori horrela, gehitzen du, mozioa ez duela ezertan ere aldatuko.

Arrasate zinegotziak (EAJ) esaten du noski Israel gaitzesten duela inolako ñabardurarik gabe baina bestalde iruditzen zaiola manikeismoan ez genukeela erori behar, oso erraza dela txintxo eta gaiztoen artean zatitzea baina hortik ez datorrela irtenbiderik, irtenbidea ez datorrela sei milioi israeldar hortik bidali eta palestinarrek jartzearekin eta berak uste duela irtenbidea israeldarrek eta palestinarrek bakean bizitzeko leku bat aurkitze-tik etorriko dela.

Alkateak esaten du iruditzen zaiola justua dela esatea koheteek ere bere kaltea eta mina egiten dutela.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak eman ondoren, Joseba Hernandezek esaten du azken unean sartu nahi den aipamen horrek zentzua aldatzen diola mozioari.

Alkateak erantzuten dio esanez bozkatzek dena mozioa dela ez egin diren aipamenak.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du aipamena egin galditu dela eta ondo iruditzen zaiola baina esan nahi duela baita ere bera Israelgo arazoa gogoz eta begikotasunez jarraitu dutenen belaunaldikoa dela, lurrik gabeko herri bat, kibutzak eta abarrekin autogestioaren eredu izan den herri bat, baina baita ere Nazio Batuen ebazpenenak ez betez urte asko eman dituela eta palestinar herria muturreko egoerara eramanez eta muturreko egoerak erreakzioak sortzen dituztela eta horren harira hain da desberdintasuna bitartekoena, diruarena, dagoen hipokresia politikoa, gurea barne, guzti horregatik, gehitzen du, mozioaren egileak ñabarduraren bat sartzearabakiko balu beraiek ondo ikusiko lukete baina aldiz mozioaren egileak bere horretan uztea erabakitzen badu ez dute inolako eragozpenik mozioaren alde bozkatzeko baita ere, azken finean hor ez dutelako inolako kontraesanik ikusten kontraesan txiki txiki bat baizik eztabaidatzen ari den guztia-erikiko. Eta Serna zinegotziari zuzenduz esaten dio beraientzat ere ez lukeela inolako eragozpenik egon behar mozio honen alde bozkatzeko, hau, beraien askatasunean, beraiek erabakiko baldin badute ere.

Saldaña zinegotziak esaten du bera mozioa bere horretan mantentzean dagoela.

...///...



...///...

Serna zinegotziak esaten du Estensoro zinegotziak esandakoarekin bat datorrela eta kontsentsuaren alde eginez alde bozkatuko dutela.

Guzti honen ondoren, mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin mozioa onartu egiten du.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



